**UDAL OSOKO BILKURA** SESION PLENARIA MUNICIPAL

**TOKIA / LUGAR:** Udaletxea
**EGUNA / FECHA:** 2019/02/27
**HASIERA / INICIO:** 19:00
**AMAIERA/FINAL:** 19:10

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**ALKATEA/EL ALCALDE:**
Aitor Aretxaga Telletxea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:**
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Naiara Ruiz Badiola (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)
Rodolfo Lartitegi Azpitarte (BIT)

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Víctor-Martín Amparan Álvarez

**IZAERA / NATURALEZA:** Ohikoa / Ordinaria
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** Lehena / Primera

Busturiko Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkate jauna buru zela eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Udaleko Osoko Bilkura bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Saioan ebatzitakoaren fede Udalbatzako Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.

Alkate jaunak aginduta, hasiera eman zitzaion bilerari, zinegotziei nahikoa denborarekin banaturiko gai-zerrendaren arabera, eta akordio hauek egin ziren:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

**1.- Aurreko saioko akta.-**

Osoko Bilkurak aho batez adostu zuen 2018ko abenduaren 26ko saioko akta onartzea.

**1.º.- Acta de la sesión anterior.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 26 de diciembre de 2018.

**2.- Alkatetza-dekretuak.-**

Ondorengo alkatetza-dekretuen berri eman zitzaion Osoko Bilkurari:

- 1/19, zeinaren bitartez 60/18 espedienteko hirigintza-lizentzia eman den.
- 2/19, zeinaren bitartez 1/19 eta 2/19 espedienteetako hirigintza-lizentziak eman diren.
- 3/19, zeinaren bitartez 4/19 eta 5/19 espedienteetako hirigintza-lizentziak eman diren.
- 4/19, zeinaren bitartez 4/19 espedienteko hirigintzako lizentzia ez ematea erabakitzen den.
- 5/19, zeinaren bitartez 6/19, 7/19, 9/19 eta 10/19 espedienteetako hirigintza-lizentziak eman diren.
- 6/19, zeinaren bitartez 12/18 espedienteko hirigintza-lizentziaren zuzenketa egiten den, 20/18 Alkatetzaren dekretuaren bitartez emon zena.

**2.º.- Decretos de la Alcaldía.-**

El Ayuntamiento Pleno fue informado de los siguientes decretos de la alcaldía:

- N.º 1/19, por el que se concede la licencia urbanística del expediente 60/18.
- N.º 2/19, por el que se conceden las licencias urbanísticas de los expedientes 1/19 y 2/19.
- N.º 3/19, por el que se conceden las licencias urbanísticas de los expedientes 4/19 y 5/19.
- N.º 4/19, por el que se deniega la licencia urbanística del expediente 3/19.
- N.º 5/19, por el que se conceden las licencias urbanísticas de los expedientes 6/19, 7/19, 9/19 y 10/19.
- N.º 6/19, por el que se rectifica la licencia urbanística del expediente 12/18, concedida por Decreto de Alcaldía n.º 20/18.

**3.- Martxoaren 8ko, Emakumeen Nazioarteko Eguneko, adierazpenak.-**

Osoko Bilkurak aho batez adostu zuen ondoko adierazpenak onartzea, martxoaren 8ari, Emakumeen Nazioarteko Egunari, buruzkoak:

a)EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen proposamena.-

“Gizarteak mezu argia jaso zuen 2018an, Mugimendu feministak Martxoaren 8rako egindako emakumeen lan-etenaldi deialdiari eman zitzaion erantzunaren aurrean: kaleak bete ziren eta elkarlan-sareak sustatu, emakumeek beren aukera-berdintasuna erreklamatzeko abian jarrita zuten

**3.º.- Declaraciones sobre el 8 de Marzo, Día Internacional de las Mujeres.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, aprobó las siguientes declaraciones con motivo del día 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres:

a) Propuesta por EUDEL-Asociación de municipios Vascos.-

“En 2018 la sociedad recibió un mensaje claro ante la respuesta que se dio a los paros de mujeres convocados por el Movimiento Feminista el 8 de Marzo: se llenaron las calles y se impulsaron las redes de colaboración para expresar que la lucha iniciada por las mujeres para reclamar la igualdad de

borrokak atzera bueltarik ez zuela.
2019rako ere indarrean jarraitzen dute emakumeen aldarrikapenek, "Bizitzak Erdigunera!" lelopean. Aurten ere, emakumeen bizitzak jasangarri, libre, anitz eta duinak izateko eskaerak kaleak hartuko ditu. Beharrezkoa da emakumeen lan-prekarietatea eta pobrezia salatzea, indarkeria matxista guztien aurka egitea, eta bazterkeria eta arrazakeriari uko egitea.
Gizarte honen barnean emakumeengan eragiten duten zapalkuntza eta diskriminazio-sistema guztiak desagerrarazteko lanean gure udaletik ere Martxoaren 8an Emakumeok planto egitea eta Bizitzak Erdigunean jartzea aldarrikatuko dugu.
Eta zer esan nahi du azken horrek, zehazki?
Gure bizitzak sostengatu eta beroriek erdigunean jartzeko ordainduak eta ordaindugabeak diren lan guztiak beharrezkoak diren heinean, nagusiki emakumeoi egokitu zaigun zaintza-lan hori guztia eremu pribatu horretatik atera behar dugula; hau da, zaintza eta etxeko lanen ardura sozializatu behar dela eta gizonek eta erakunde publikoek ardura zuzenak hartu behar dituztela.
Denboraren erabilera orekatzea erabat estrategikoa eta gakoa da berdintasun-politikak eraginkorragoak izan daitezen. Europako Berdintasun Adierazleak kontuan hartzen dituen esparruetatik Denborakoan eragiteak, Boterea, Ezagutza, Dirua eta Enpleguetako domeinuetan eragitea ere badakar.
Aurrekari hauek aintzat hartuta, Busturiko Udalak erabaki hauek hartzen ditu:
- Busturiko Udalak ardura hartzen du berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko duten politika publikoak burutzeko.
- Busturikoko Udalak ardura hartzen du zaintza-lanak bere politika publikoen erdigunean jartzeko.
- Busturiko Udalak, Mugimendu feministak deitutako greba dela eta, ardura hartzen du udaleko emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak emateko.
Azkenik, herritarrak deitzen ditu Emakumeen Nazioarteko Egunagatik Mugimendu feministak Martxoaren 8an deitutako mobilizazioetan eta ekitaldi desberdinetan aktiboki parte hartzera."

b) EH Bilduko Zinegotzien proposamena.-
"Iaz, lehenengo aldiz, Euskal Herriko Mugimendu Feministak emakumeen lan etenaldi partziala deitu zuen Martxoaren 8rako, indarkeria matxistak eta emakumeak eragiten dituen desberdintasun molde ugarik eragiten dituzten desorekei aurre egiteko. Emakumeok Planto – Nosotras Paramos lelopean, emakumeak zapaltzen dituen sistema kapitalista,

oportunidades no tiene vuelta atrás.
En 2019 siguen vigentes las reivindicaciones de las mujeres bajo el lema de "¡Las vidas al Centro!". Este año también tomará las calles la demanda de las mujeres para tener vidas sostenibles, libres, diversas y dignas. Es necesario denunciar la precariedad laboral y pobreza de las mujeres, luchar contra todas las formas de violencia machista y rechazar la exclusión y el racismo.
Desde nuestro Ayuntamiento, trabajando para hacer desaparecer todos los sistemas de opresión y discriminación que afectan a las mujeres, también reclamaremos que las mujeres se planten y que se sitúen las Vidas en el Centro.
¿Y que implica esto exactamente?
En la medida en que todos los trabajos son necesarios para el sostenimiento de la vida, tanto los remunerados como los que no lo son, tenemos que sacar del espacio privado todo el trabajo de cuidados que nos toca mayoritaria a las mujeres; esto significa, que hay que socializar la responsabilidad de trabajo doméstico y de cuidado, y que los hombres así como las instituciones y entidades públicas tienen que asumir responsabilidad directa.
Resulta estratégico y clave equilibrar el uso del tiempo para que las políticas de igualdad sean efectivas. Entre los ámbitos de referencia en los Indicadores Europeos de Igualdad, intervenir sobre el del Tiempo acarrea cambios en los dominios del Poder, el Conocimiento, el Dinero y el Empleo.
Teniendo en cuenta estos antecedentes el Ayuntamiento de Busturia toma los siguientes acuerdos:
El Ayuntamiento de Busturia asume la responsabilidad de llevar adelante políticas públicas que garanticen la igualdad real y efectiva.
El Ayuntamiento de Busturia asume la responsabilidad de poner en el centro de sus políticas públicas las tareas de cuidado.
El Ayuntamiento de Busturia, con motivo de la huelga convocada por el Movimiento Feminista asume la responsabilidad de facilitar el ejercicio del derecho a la huelga a las trabajadoras y electas municipales.
Al fin, hace un llamamiento a la ciudadanía para que participe activamente en las movilizaciones convocadas para el próximo 8 de marzo por el Movimiento Feminista con motivo del Día Internacional de las Mujeres."

b) Propuesta por los concejales de EH Bildu.-
"El pasado año, por primera vez, el Movimiento Feminista de Euskal Herria convocó una huelga de mujeres el día 8 de marzo, rechazando las violencias machistas y las numerosas

patriarkala eta arrazista salatu zen.
Euskal Herriko emakume askok bat egin zuten greba dei horrekin eta mugarritzat jo zen, borroka eta aldarrikapen feministek bisibilizazio handiagoa lortu ondoren Euskal Herrian.
Aurten, Euskal Herriko Mugimendu Feministak, eragile sindikal, politiko eta sozialekin batera, 24 orduko greba deia luzatu du. Greba bost ardatzetan antolatzen da: zaintza, enplegua, pentsionistak, ikasleak eta kontsumoa. Greba feminista, guztion bizitzan eragiten duten esparruetan kokatzen da, soldatapeko zein doako lanetan, kontsumo ereduan, sexualitatean, arrazakerian, etab. Horregatik, grebaren bitartez, ardura kolektibotik abiatuta bizitza sostengatzeko itun sozial berri bat eskatzen dio euskal jendarteari, berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko duten politika publikoak burutuz. Iaz bezala, aurten ere zaintza erdigunean kokatzen da, zaintzaren berrantolaketa soziala politika publikoen zeharkako ardatza izan behar dela aldarrikatuz.
Horregatik, eta Euskal Herriko Mugimendu Feministaren motibazioa eta proposamenarekin bat egiten dugunez, Busturiko Udalak adosten du :
- Mugimendu feministak deitutako grebara atxikitzea, eta erakundea osatzen dugun emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak ematea.
- Herritarrei dei egitea mugimendu feministak deitutako mobilizazioetan parte hartzeko.”

expresiones de desigualdad que afectan a las mujeres. Bajo el lema Emakumeok Planto – Nosotras Paramos se denunció el sistema capitalista, patriarcal y racista que somete a las mujeres.
La convocatoria consiguió la adhesión de una parte importante de las ciudadanas vascas y marcó un hito consiguiendo una mayor visibilización de las luchas y reivindicaciones feministas en Euskal Herria.
Este año, el Movimiento Feminista de Euskal Herria, junto a diversos agentes políticos, sindicales y sociales, lanza una nueva convocatoria, esta vez proponiendo un paro de 24 horas. La huelga se articula en torno a 5 ejes: cuidados, empleo, pensionistas, estudiantes y consumo. La huelga feminista pretende centrarse en todos los ámbitos de la vida, en los trabajos remunerados y no remunerados, en el modelo de consumo, en la sexualidad, en el racismo, etc. Pide a la sociedad vasca responsabilidad colectiva así como un nuevo pacto social para sostener la vida que deberá incluir políticas públicas para garantizar la consecución de una igualdad real y efectiva. Este año, al igual que el pasado, los cuidados son un eje central, reivindicando que la reorganización social de los mismos debe ser un aspecto transversal de las políticas públicas.
Por todo ello, compartiendo la motivación y la propuesta del Movimiento Feminista de Euskal Herria, el Ayuntamiento de Busturia acuerda:
- Adherirse a la convocatoria de huelga realizada por el movimiento feminista y dar facilidad para que las mujeres, trabajadoras y cargos, que forman parte de esta institución puedan hacer huelga.
- Hacer un llamamiento a la ciudadanía a participar en las movilizaciones convocadas por el movimiento feminista.”

**4.- 2018 ekitaldiaren likidazioa.-**

Osoko Bilkurak 2018 ekitaldiaren likidazioaren berri jaso zuen, eta jakin zuen toki-erakundearen egonkortasun-helburua bete egin dela; horiek horrela, hauxe da emaitza:
- Altxortegiko soberakina gastu orokorretarako: 327.949,13 €
- Aurrekontu-emaitza doituta: 162.728,21 €

**4.º.- Liquidación del ejercicio 2018.-**

El Ayuntamiento Pleno tomó conocimiento de la liquidación del ejercicio 2018 y del informe sobre el cumplimiento del objetivo de estabilidad de la entidad local, que dan como resultado:
- Remanente de tesorería para gastos generales: 327.949,13 €
- Resultado presupuestario ajustado: 162.728,21 €

**5.- Galde-eskeak.-**

Ez ziren egon.

**5.º.- Ruegos y preguntas.-**

No se produjeron.

Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta, adostutakoa oinarri, Alkate jaunak eta neuk, Idazkariak, egiaztatu egiten dudanak, akta hau sinatu dugu.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Alkatea/El Alcalde

Idazkaria/El Secretario,

Aitor Aretxaga Telletxea

Víctor-Martín Amparan Álvarez